

Otegi: «EAJren eta EHren proposamenak bertsuak dira, estrategia da aldea»

«Etorkizunez betetako eztabaida» planteatu izana da garrantzitsua, haren ustez

Alberto Barandiaran / Iruñea

Euskal Herritarrok taldearen ustetan, «pentsaezina» da egungo markotik abiatzea Euskal Herriaren eraikuntzarako bidean, baina EAJk egin proposamena eta Euskal Demokrazia izeneko egitasmoa «bertsuak» dira. «Planteatzen den estrategia da aldea», atzo Arnaldo Otegi esan zuenez. Ezker abertzaleko taldeak Iruñean aurkeztu zuen proposamena, «etorkizunez betetako debata».

EH-K eta EAJk Euskal Herria egituratzeko berriki plazaratutako proposamenak «bertsuak» dira, baina estrategian ezberdinak, atzo Arnaldo Otegi adierazi zuenez. EHko bozeramaileak nabarmendu zuen bere taldea prest dagoela ahaleginak egiteko euren proposamena mahai gainean jarri eta gaintzeko taldeenarekin alde-ratzeko, «ikusteko zein den euskal gizarteak aukeratzen duena».

Euskal Herriko hiriburuetan egiten ari diren aurkezpenetan, Nafarroakoaren txanda izan zen atzo, eta Fernando Barrenak eta Arnaldo Otegi azaldu zuten Planea-tarioan bildutakoen aurrean *Euskal Demokrazia* izena duen egitasmoa. Arnaldo Otegi azpimarratu zuen proposamena bera baino gehiago eztabaidatzeko modua zela garrantzitsua, eta jendearen galderei bide emateko zegoen, bereziki, planteatuta bilkura.

Nolanahi ere, Otegi EHk abiatu nahi duen prozesuaren laborpen zehatza egin zuen. Hasteko, esan zuen une «historikoa» dela, sakontasun estratergiako handikoa.

«Lehen aldiz Euskal Herria atxiki zaio eztabaida politikari, eta horrek dimentsio handia ematen dio honi».

Otegi azaldu zuen eztabaida egin behar dela ikusteko zer-nola eutsiko dion Euskal Herriak mundu gero eta globalizatuagoari, «eta ikusteko nola gorde daitekeen gure kultura, gure izaera, gure hizkuntza». Abenturarik ez dela nabarmendu ondoren, onartu zuen helburua dela Euskal Herria normalizatzea, «zatikatuta egonda ezin dugulako besteek egin dutena egin; normalizazio politikoa behar dugu, beraz».

Quebecoko adibidea

Quebecoko adibidea jarri zuen gero, baina aldeak azaltzeko. «Haiek badakite nork egin behar duen deia autodeterminazioaz hitz egiteko, eta zein eremutan egin behar den hori. Guk ez, eta horregatik hori dugu eginbeharra». Horretarako, Euskal Herriko Batzar Eratzailearen sortzea planteatuko du Euskal Herritarrok taldeak, konstituzioa egiteko zeregina izango duena, hau da, zehaztea zer eskumen-botere



PABLO S. QUIZA

Pernando Barrena eta Arnaldo Otegi, artxiboko argazki batean.

emango dion Euskal Herriak bere buruari, zer arkitektura instituzional ezarri behar den, eta azkenik, Euskal Herriaren ordezkari-tza

nazioartekoaren lekuko eramateko. Hori aukeratuko litzateke lurralde guztietan egingo liratekeen hauteskunderen bidez.

PP, PSE, UA eta IUk agiri bateratua kaleratu dute indarkeriaren aurka

■ Diotenez, herritarren ordezkariak ETAre «jomugan» jarraitzen dute

Efe / Gasteiz

EUSKO LEGEBILTZARRREAN ordezkari-tza duten PP, PSE-EE, IU-EB eta UA alderdiek agiri bateratua kaleratu zuten atzo ETAre indarkeriaren kontra. Agirian «indarkeria behin betiko amaitzeko» eskatzen diote erakunde armatuari; eta ustez ETAK Legebiltzarra eta zenbait legebiltzarkide zelatatu izana gaitzesten dute. Agirian diotenez, «euskal herritarren zilegizko ordezkariak ETAre jomugan jarraitzen dute». Agiria ETAre atzemandako dokumentu batzuen harira egin dute Eusko Legebiltzarreko alderdi ez-abertzaleek, informazio hori kaleratu zenetik egin den lehen osoko bilkura-ren inguruan.

Egibarrek dio helburua autodeterminazioa dela

Erredakzioa / Donostia
JOSEBA EGIBAR EAJren EBBko bozeramaileak hainbat hedabidetan hitz egin zuen atzo EAJk egin berri duen proposamenaren inguruan. Esan zuenez, «helburua autodeterminazio eskubidea da». «Baina guk ez dugu erreferentzialtasun edo nolabaiteko aitortpen berezi bat behar, ez dakit nolako marko edo konstituziotan, autodeterminazio eskubidea dugula aitortzeko», gaineratu zuen atzo, ETBn, buruzagi jeltza-leak.

Egibarren arabera, baina, «onuragarria» litzateke «besto botere batzuk ere hori aitortzea». Dena dela, Egibarren esanetan, hemendik aurrera «autodeterminazio eskubide horren ariketa batean sartzen gara». Hala, prozesu politiko berri bati hasiera eman beharra dagoela nabarmendu zuen: «Prozesu politiko berri horretan gizarte osoaren partaidetza bideratu behar da, eta horren ondorioz iritsi gaitzkeen marko berri hori herriak berak bozkatu dezan».

EUSKAL HERRIKO ZIKLO-KROSS TXAPELKETA

ASTEASUN
1999-12-26

KADETEAK: 10:15
JUNIORRAK: 11:00
ELITE/SUB-23: 12:00

LAGUNTZAILEAK

- KEELAVITE HISPANIA
- LASA TROKILAK
- CONSTRUCCIONES AITZONDO
- TALLERES TRORTU
- ITURRI-ONDO JATETXEA
- PEDRO M. ORMAZABAL GARRAIOK
- PATXINE JATETXEA
- ANIELITA SARASUA DENDA
- LANDU AROZTEGIA
- AITZONDO ELKARTEA
- IRRIINTZI T.E.

LAGUNTZAILEA:

Egunkaria